

Lectura del 8 de Marzo de 2016 ¡Esta no es nuestra paz! El feminismo nos hará país

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA :: 08/03/2016

[Eusk/Cast] Las mujeres no vivimos “en paz”, no al menos en esta situación neutralizada de paz que admite la violencia contra las mujeres.

[Euskara]

2016ko MARTXOAREN 8ko IRAKURKETA

Hau ez da gure bakea!

FEMINISMOAK EGINGO GAITU HERRI

Bake hitza izan dugu hizpide azken urte hauetan Euskal Herrian. Nahiz eta jada diskurtso politiko hegemonikoetan, bakea, segurtasunagatik ordezkatu duten agintari politikoek. Bakea ez da soilik zuzeneko indarkeriarik edo gerrarik gabeko egoera. Feministok, bakea: giza eskubideekin, garapen sozialarekin eta naturarekiko errespetuarekin lotutako epe ertain eta luzeko prozesu konplexu gisa ulertzen dugu. Gureak bailiran hartu ditugu zenbait gerra, nahiz eta ez gaituzten kontuan hartu. Horrela, arazo handiak behin konponduta, soluzio-bidean jarriko zirelakoan geunden. Baina ez dugu konfiantzarik jada, ez baitago horretarako borondaterik. **Normalizazio prozesua bizi dugula Euskal Herrian dioskute. Patriarkatuaren funtzionamendu “baketsua” alegia? Baina emakumeok ez gara “bakean” bizi, ez behintzat emakumeon kontrako indarkeria normalizat duen bake egoera neutralizatu honetan: zeinetan, emakumeon aurkako gutxiespenak, irainak, gustukoak ez diren txisteak, kolpeak, erailketak, prekariedade eta muturreko pobrezia egoerak, etab eguneroko errealtate diren gurean.** Ez dugu patriarkatuaren bakean sinesten, herritarron ahalduntze, eta herria eraiki eta antolatze bide feminista aukeratzen dugu.

Krisi hitzaz han-hemenka dihardugu azken bolada luzean. Grezieraz aukera esan nahi du “krisiak” eta gu aldaketaren aukera, eta berau norabidetzean berresten gara. Euskal Herriaren burujabetza feministaren bidean, alegia. Honek oinarri izan behar ditu: burujabetza indibidual eta kolektiboa, eta feminismoa noski. Burujabetza feminista ordea, ez dugu egoera ideal, estatiko eta mugiezin baten gisara irudikatzen, prozesu dinamiko eta momenturo aldakorra izango den ipar moduan baizik. Etorkizuneko Euskal Herria eraikitze norabidea, eztabaida sozial anitzen ondorioz zehazten joango gara. Prozesu honek egingo gaitu herri.

Horretarako, estrategia kolektibo feminista bat osatzeko apustuari heldu behar diogu. Batetik, Euskal Herria osatzen dugun subjektuon burujabetza bultzatuko duen ahalduntzea hezur mamitzeko, gorputzak (emozio, desirak, beharrak, pentsamenduak) eta harremanak eraldaketa prozesuaren erdigunean jarriko dituen. Eta bestetik, komunitatearen sorrera, herrigintzan, herritarron parte hartzean, Euskal Herriaren askapen prozesu eta gatazken

konponbidean eragiten duen ahalduntze prozesua ere behar beharrezkoa dugu, gutasunak egiten gaituelako libre.

Bide orri hau, gaur egun existitzen diren zapalkuntza anitzak gainditzeko bidean ulertzen dugu guk, Euskal feminismoak eman digun zapalkuntza hirukoitzaren (sexu-genero, klase eta kultura zapalkuntzak) ikuspegiaren aitortzatik, interseksionalitatearen norabidean.

Beraz, baimenik eta barkamenik eskatu gabe, euskal feministok bagoaz! Euskal Herrian burujabetza feminista eraikitzeke feministok kalean kontra-boterea artikulatzearekin batera, boterearen jabe izan behar dugu. Boterea hartzea gaitasun politikoa eta intzidentzia irabaztea dela ulertzen dugu, mapa politikoa baldintzatu ahal izateko, hartzen ari diren erabaki eta neurrietan eragiteko eta aldaketa sozialaren oinarriak markatu ahal izateko. Honez gain, botere hartzea ahalduntze pertsonal eta kolektiboarekin ere lotzen dugu. Horretarako, Mugimendu Feministaren aitortza politikoa lortu behar dugu, lidergo feminista bat osatuz eta botere guneak irabaziz. Hau epe motzean lortu dezakegu aliantza eta estrategia komunak ezarriz gero, eta Euskal Herrian feminismotik eragingo duen gune feminista iraunkorra osatuz.

Eta bidean, feminismoak, herritarron ahalduntze kolektiboaz, egingo gaitu herri. Demokrazia erradikala, parte hartzea, gatazken kudeaketa negoziaketaren bitartez, justizia sozialaren alde aliantza anitzak xaxatuz, alternatibak eraiki eta saretuz, eta aniztasunean oinarritutako Euskal Herria sortuz. Erronka handiak ditugu euskal feministok eskuartean, baina museko partida honetan handira jokatzeko tenorean gaude. Enbidoari hordagoa!

Feminismoak egingo gaitu herri!

Hau ez da gure bakea!

Euskal Herriko Bilgune Feminista

2016ko Martxoaren 8an

[Castellano]

Lectura del 8 de Marzo de 2016

¡Esta no es nuestra paz!

El feminismo nos hará país

En los últimos años, en Euskal Herria, la paz ha sido tema de conversación. Aunque en el discurso político hegemónico, las y los mandatarios políticos han sustituido la paz por seguridad. La paz no es sólo una situación sin violencia directa o guerra. Las feministas entendemos la paz como un proceso complejo a medio o largo plazo relacionado con los derechos humanos, el desarrollo social y el respeto a la naturaleza. Hemos asumido diferentes guerras como si fuesen nuestras, aunque no nos han tenido en cuenta, porque pensábamos que así, una vez solucionados los grandes problemas, nos situaríamos en el camino de la solución. Pero ya no tenemos confianza porque vemos que no hay voluntad

para ello. Nos dicen que hemos vivido un proceso de normalización en Euskal Herria. ¿Tal vez el funcionamiento “pacífico” del patriarcado? Pero las mujeres no vivimos “en paz”, no al menos en esta situación neutralizada de paz que admite la violencia contra las mujeres. Una situación en la que el menosprecio a las mujeres, los insultos, los chistes de mal gusto, los golpes, asesinatos, la precariedad y las situaciones de pobreza extrema, etc... son nuestra realidad cotidiana. No creemos en la paz del patriarcado, optamos por el empoderamiento de la ciudadanía y el camino feminista para construir y organizar nuestro país.

Llevamos una larga temporada hablando de crisis. En griego “crisis” significa oportunidad y nosotras queremos esta acepción para el cambio y nos ratificamos en su orientación. Concretamente en dirección a una Euskal Herria feminista y soberana. Esta dirección debe tener como base la soberanía individual y colectiva y, por supuesto, el feminismo. Sin embargo, no concebimos la soberanía feminista como una situación ideal, estática e inamovible, sino como un proceso dinámico, que tendrá como norte el cambio a cada momento. La dirección para la construcción de una futura Euskal Herria se irá concretando como resultado de muchos debates sociales. Y dicho proceso nos hará país.

Para ello, debemos hacer una apuesta por conformar una estrategia colectiva feminista. Por un lado, para convertir en realidad el empoderamiento que impulsará a quienes conformamos el sujeto soberanista en Euskal Herria, que ponga en el centro el proceso de cambio de los cuerpos (emociones, deseos, necesidades, pensamientos) y de las relaciones. Y, por otro, también es imprescindible un proceso de empoderamiento que incida en la creación de la comunidad, en hacer país, en la participación de la ciudadanía, en el proceso de liberación de Euskal Herria y en la solución del conflicto.

Esta hoja de ruta debe estar orientada a superar las múltiples opresiones que existen hoy en día, reconociendo la teoría de la triple opresión (la opresión sexo-género, clase y cultura) que nos ha dado el feminismo vasco, y dirigiéndonos hacia el punto de vista interseccional de las múltiples opresiones.

Por lo tanto, sin pedir permiso ni perdón, ¡las feministas vascas vamos adelante! Para construir en Euskal Herria una soberanía feminista, las feministas, junto con la articulación de un contrapoder en la calle, debemos ser dueñas del poder. Consideramos que hacernos con el poder supone ganar capacidad política e incidencia, para poder condicionar el mapa político, para influir en las decisiones y medidas que se están tomando y para poder marcar las bases del cambio social. Además, al hacernos con el poder también conseguimos un empoderamiento personal y colectivo. Para ello, debemos lograr el reconocimiento político del Movimiento Feminista, conformando un liderazgo feminista y ganando espacios de poder. Podemos conseguir todo esto a corto plazo si establecemos alianzas y estrategias comunes y si en Euskal Herria creamos un espacio feminista duradero.

Y mientras, el feminismo, el empoderamiento ciudadano colectivo, nos hará país. La democracia radical, la participación, la gestión de los conflictos por medio de la negociación, provocando las alianzas plurales a favor de la justicia social, creando alternativas y redes y creando una Euskal Herria basada en la pluralidad. Las feministas vascas tenemos grandes retos entre manos, pero en esta partida de mus jugamos a la

mayor. ¡Envíalo al hordago!

¡El feminismo nos hará país!

¡Esta no es nuestra paz!

Euskal Herriko Bilgune Feminista

2016ko Martxoaren 8an

<https://eh.lahaine.org/lectura-del-8-de-marzo>